



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Larunbat honetan *Diva* izango dugu Arriaga Antzokian, Albert Boadellaren opera-drama, Maria Callasen azken urteak erretratatzeko dituen

- Antzerkiaren eta operaren artean dabilen obra honetan **María Rey-Joly** sopranoak Callasena egiten du, eta **Antonio Comas** pianista eta tenorrek **Aristo Onassisena**.
- **Manuel Coves** arduratuko da ikuskizun honen zuzendaritza musikala eta ikusleek larunbat honetan ikusi ahal izango dute, urriaren 23an, 19:00etatik aurrera.

Bilbo, 2021eko urriaren 20a. – Arriaga Antzokiak harrera egingo die larunbat honetan (19:00etan) **María Callas** eta **Aristo Onassis**. Horiek *Divan* hezuramitzeko **María Rey-Joly** sopranoa eta **Antonio Comas** pianista eta tenorra izango ditugu gurean, Albert Boadellaren ikuskizun zirraragarrian, operaren eta antzerkiaren artean mugitzen den obran alegia.

Diva lanarekin opera-dramara itzuli da Albert Boadella zuzendaria. Genero lirikoari eskainitako aurreko muntaien ondoren, *Don Carlo*, *El pimiento Verdi* edo *¿Y si nos enamoramos de Scarpia?* obren ondoren, **María Callas**en mitoari heldu dio oraingoan, diva handi hark izan zuen bizitza tragikoa eraikitzeko, **Onassis**ek utzi zuenean eta bere ahotsak, jada, bere ospearen itxaropenei erantzuten ez zirenean.

Interpretatzaileak **María Rey-Joly** (Callasena egiten) sopranoa eta **Antonio Comas** (Aristo Onassis) pianista eta tenorra dira. **Manuel Coves** maisua musika-zuzendaritza lanetan dela igoko dira agertokira, eta hark gidatuko ditu. Gainera, Albert Boadellak era honetako ekoizpenetarako izan ohi duen kolaboratzaile taldearekin lan egin du, zehazki **Martina Cabanasekin**, zuzendari laguntzaile gisa, **Bernat Jansárekin**, argiztapenaren diseinuan, eta **Dolors Caminalekin**, arte aholkulari gisa.

Divaren trama dramatikoan Toskako ariak erabiltzen dira: *Trobalaria*, *Madama Butterfly*, *La Wally*, *Dido eta Eneas*, *Otello*, *Norma*, etab. **María Rey-Joly**ren moldakortasunari esker, eta hainbat erregistrotara ahotsez egokitzeko duen gaitasunari esker, bikaina da **María Callas** antzezten lortzen duen emaitza. Gogoan izan behar da soprano madrildar honek aurretik ere lan egin izan duela Boadellaren esanetara, *El Pimiento Verdin* eta *Y si nos enamoramos de Scarpian*.

María Callas artistaren bizitza beti izan zen hein baten opera tragiko baten modukoa: harengan bat egiten zuten **María Callas** bakartiak, sakrifizio pertsonal handiak bizi izan zituenak, eta jet setaz —**Visconti**, **Pasolini**, **Churchill**, **Marilyn Monroe** edo **Grace Kelly**— inguraturik arrakasta handiak lortu zituen irudi publikoak. *Diva* lanak erakusten dituen urteetan, **Callas** gainbehera betean dago. **Onassis** hil egin da, eta kritikak

gupidarik gabe tratatzen du Callas. Oroitzapenen munduan bizi da, oraina arbuiatzen du, eta jada berriro interpretatu ezingo duen ametsezko errepertorioan zehar laguntzera behartzen du répétiteur edo maisu errepikatzailea. Egoera sadomasokista sortzeko ere erabiliko du. Onassis maite handia interpretatzera behartuko du. Haren unerik sutsuenak eta gorenak. Eldarnioan, abeslariak berak antzestu zituen opera drametako bikote gisa irudikatuko du maitale grekoa. Hilko duen pertsonaia izango da, edo operaren amaieran berarekin batera hilko dena. Bere amaiera misteriotsurako bidearen hasiera da, laster nahieran burutuko duen bidearena.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 12 eta 25 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Diva

Egilea eta eszena-zuzendaria: **Albert Boadella**

Musika-zuzendaria: **Manuel Coves**

Antzezleak:

María Rey-Joly (Maria Callas)

Antonio Comas (Onassis)

Aholkularitza artistikoa: **Dolors Caminal**

Argizatzailea: **Bernat Jansà**

Soinu-diseinua: **Pedro Lastra**

Zuzendaritza-laguntzailea: **Martina Cabanas**

Koreografia: **Silvia Brossa**

Arien akonpainamendua Galiziako Real Filharmoníak grabatu du.

Informazio gehiago:

Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA

Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307

comunicacion@teatroarriaga.eus

www.teatroarriaga.eus